

LEHEN FRANKISMOAREN AGERPENA ARABAN

JAVIER UGARTE

Daitekeena da 1936ko uztailaren 18an (geroago famatua izango zen *18 de julioa*) *Frontón Vitoriano*ko boxeo gaujaian parte hartzera hurbildu zirenak, edo Carmen Diaz aktorea *Principalean* ikustera joan ziren beste haiek, edo baita, agian jairako gogo haudiagoarekin baina leporatzeko mozkin gutxiagoarekin *Ortiz de Zárate*n ematen ari zen berbenara jo zutenak, hiru urte geroago apenas, beraien hiria jai edo pozaren aurkako erabateko mesfidantza —edo, hobe, gaitzestea— izango zuen erregimen baten pean egongo zenaren susmorik ere ez izatea.

Zerbait iluna barruntatzen zen aspaldian. Egia da. Egia ere urte haren otsailetik adorea berotuagoak zeudela politika arloan. (Horrela somatzen zuten behintzat Madrileko gertakarien berri zutenak —gutxienak azkenean—; eta haien artean, Tomás Alfarok, funtziotan zegoen hiriko alkateak: «*Cada día estoy más desilusionado [con el curso de los acontecimientos]. Creo que España camina desbocada hacia lo desconocido...*», idazten zuen apirilean bere egunerokoan) (1). Den hori horrela da. Baita 18 eta 19aren arteko gaua ez zela jaigirokoa izan, hain zuzen, Errepublikaren aldeko zein aurkako hainbat gasteistarrentzat. Baina tragediari antzematen bazitzaion (2),

(1) Aipatua in S. de PABLO, *La Segunda República en Alava. Elecciones, partidos y vida política*, Bilbao, 1989 (hemen doktorego tesiaren eskuidatziatik aipatzen da, Gasteiz, UPV/EHU, 1987, 734 or.).

(2) Eta hau ere erreserbarekin esango nuke. Tomás Alfarok pertzepzio hori bazuen ere, Isaac Puente —sendagile anarkista— bere herrian (Maestu) eta bere etxean jarraitu zuen atxilotzera joan ziren arte (asonada izan eta hamar egunetara; M. PECIÑA, «Isaac Puente, 1896-1936», Muga 5, 1980-apirila, 93 or.). Eta ez arriskurik ez zegoelako (1936ko irailean leon *paseatu* bait zuten), baizik eta, zihur aski, hura ez zuelako somatzen (ez hain larria behintzat). Bere ustetan uztailaren 19an gertatutakoa Errepublika garaian —eta lehenago— eman ziren “militarada” bat gehiago besterik ez zen. Tomás Alfaro bera, Gasteizko alkatea izan arren, kalean ari zen uztailaren 19an; eta, egun horretan, gogor egitea ez zuela ikusi ondoren, aparteko sesio berezi batetan Rafael Santaolallari —Gastizko lehen alkate frankista— transferitu zion alkatetzara (*Actas del Ayuntamiento de Vitoria*: 19 julio 1936). Karlistek beste irudi bat ematea nahi izan zuten arren, otsaileko hauteskunderen ondoren ez zen Araban eman honelako bizitza politikoaren degradakuntza berezirik. Ene ustetan Santiago de PABLOren lanaren IX. kapitulua (La *Segunda... op. cit.* «El Frente Popular», 666-746 arr.) duen zentzu “fatalista” zuzendu beharko litzateke.

ezin zen inolaz ere aurrean honek artuko zuen zuzenbidea, eta bilakaera haretatik sortuko zela gero *frankismo* bezela ezagutua izango zen erregimena. Are gutxiago honek hartuko zuen ezaugarri zehatzak (nahiz eta beldurra aurretik aritu, eta terrorea izan lehenengo azaldu zuen bere seinalea).

Nola gertatu zen hura? *Nola* igaro zen egoera batetik bestera? hau da historiagileak iraganeko pasadizo bati aurre ematen dionean bere buruari egiten dion galdera nagusia (3). Ez ziren gauzak gertatu-behar-zirelako gertatu (Espainiako gerra zibilari buruz eman den literatura fatalista ugariak kontra-ko dion arren) (4). Zirkunstantziak —*indar inpersonul izugarri hoiak* (T.S. Elliot)— ez zuten ezin bestean egoera haretara eraman (*Errepublikaren porroketuren teoriu*), eta, noski, ezin zuten ondorean eman zen bilakaera aitziniruditu (*frankismoa*, faxismo mota berezi hura) (5). Anitz eragipen, gertaera, erabaki edo muga —errealitateak beti ezartzen dituen mugak— elkarlotzera etorri ziren aldaketaren zuzenbidea seinalatzeko. Azkenean, gauzak *honela* —eta ez beste era batetara— gertatu ziren. Bilakaera zehatz hori da *historia*. Eta toki eta garai konkretu batetan suertatu ziren gertaera *bakarrak* (errepika ezinaren zentzuan) berreraikitzea da historiagileak bere aurrean duen desafioa. Ezen azkenean, zioen Paul Veyne historiagile frantzesak, «*historia huts eginduko posibilitatez, izan ez diren gertaeraz horniturik bait dago*» (6); historiagileari dagokio azkenean suertatu zen sekuentzia erreala berreraikitzea.

Beraz, *nola* agertu zen Araban *lehen frankismoa*? Zer gertaera eman ziren Europa aldakor haretan hain lasai bizi zen Arabako lurraldean, hiru urte tragiko haiek igaro ondoren, diktadura baten pean aurkitzeko? Gerra, noski. Eta honek hainbat gauza esplikatzen du. Baina ez erregimen harek egin zituen hainbat aukera —gerra zibil guztiak, bidezkoa denez, ez dute irtenbide bera. Ezen, azkenean, erabakiak, gertaerak, eragipenak eta mugak era zehatz batetara etorri bait ziren elkarlotzera erregimen faxista konkretu bat sortuaz —beste erregimen faxistak (nazia, italiarra, e.a.) konkretuak diren neurri berean, dena den—.

Hau izango da hurrengo lerroetan adierazten zaiatuko garena: Arabak hiru urte haietan izan zuen bilakaera, eragipen ezberdinek azkenean seinalatu zuten sekuentzia erreala berreraiki —arestian genioen eran. Eta hau *kronolo-*

(3) Ikuspegi *genetiko* hau ez zentzu deskriptibo batetan ulertuta baizik eta “zergatien” kontu ere emanaz (R.G. COLLINGWOOD, *Idea de la historia*, México, 1984 [baina 1946]), eta azterketa analitiko bati ere uko egin gabe. Gai hauen azterketa bat in J. TOPOLSKY, *Metodología de la historia*, Madrid, 1982.

(4) Ikuspegi fatalista horri buruzko eritsi kritikoa in S. JULIA, «El fracaso de la República», *Revista de Occidente*, 718, noviembre 1981, 196-211 orr.

(5) Historiaren ekinidezintasunari buruzko eztabaida zaharra da ik., adibidez, Isaiah BERLIN, «La inevitabilidad histórica», orain beraren *Libertad y necesidad en la historia*, Madrid, 1974 [baina 1953], 61-131 orr.

(6) Paul VEYNE, *Cómo se escribe la historia. Ensayo de epistemología*, Madrid, 1972. 138 or.

gia bat finkatuz, ezen, azkenean, gertaerak eta bilakaera denboran zehar ematen bait dira (7).

Horrela bada, eta gure asmoak laburtaraziz, hauek Arabako lurraldean 1936ko uztailetik 1939ko azkenengo egunetara doan denbora epearen *aldizkaketa* bat eskaintzea izango liratezke. Hau egiteko bizitza *politikoa* hartu dugu mugigarri bezela. Ezen, gure ustetan, arlo horretan eman ziren, zehazki, gizarte arabar hura bere orotasunean ulertzeko kontuan izan behar diren aldaketa nagusienak. Konkretuago, *Nuevo Estadoak* bere erakuntzan zehar igaro zituen fase ezberdinen azterketa bat egingo da —eta hau funtsean ikuspegi politiko-ideologiko batetik. Arazo hau —Estatuaren kuestioa, boterearen antolaketaren kuestioa, eta agian zabalago, *nazio* baten antolaketa— izan bait zen Espainiarentzat muinezko arazoa bere garaikide aro osoan zehar, eta bereziago, *Errestaurazioaren krisitik* (8).

Hau izan zen, gainera, 1936ko uztailetik bertatik altxatuen lehenengo ardura. Urte hoietan *nazionalen* erretaguardian eman ziren harreman politikoetatik bi ikuspegi ezberdinen arteko gatazka sortu zen. Alde batetik, ikuspegi mugimentista eta faxistago bat defendatzen zutenak —behintzat beren oinarrietan—, Estatua “behetik” eraiki behar zela ulertzen zuten. Bestetik, sektore konserbadore eta eskubi tradizionalista ordezkatzeko zutenak, eginkizun hau “goitik” egin behar zela ulertzen zuten (9). Bien arteko kontziliaezinezko borroka sortu zen, ezen, azkenean, ez ziren bakarrik Estatua ulertzeko bi era ezberdin. Ikuspegi haiek bere ondorioalc zituzten giza-antolaketa mailan ere. Estatuaren elite politikoak gizarteko beste botereekin —ekonomikoarekin, batez ere— izango zuen harreman era jokatzeko zen. Edo zuzenago, harreman hoietan zer autonomia maila izango zuen Estatukaren burokraziak.

(7) Nahiz eta orokorki onartua izan den, *denbora* —eta bere konkretzia, *kronologia*, azkenengo historiografian, axolakabetua, eta mesprezaturia bane, izan da orokortasun berdinarekin. Gaur egun berak duen funtsezko tokia berrezkuratzeko eta balioztatzeko joera dago (cf., adibidez, Lawrence STONE, «El resurgimiento de la narrativa: reflexiones acerca de una nueva y vieja historia», bere *El pasado y el presente*, México, 1986, 95-120 orr.; baina baita Stonen jarrerekin kritikoak direnean artean, ik. Peter N. STEARS, «Social History and History: A Progress Report», *Journal of Social History*, winter-1985, 319-334 orr.). Ene ustetan, kronologiak kondaketa historikoan, beste batzuren artean, egiteen irautearen kontu ematea, aldaketaren, jariatunaren nozioa adieraztea, denbora historikoaren erritmoa markatzea eta gertaerak iraganeko garai zehar batetan kokatzea permititzen du. Bestalde, erakusketaren antolaketa kronologikoa, nabarmen gabeko zerbaitez izatetik urrun, egiteei lotuagoa den historia bat antolatzea permititzen du, errealitatearen adierazpen sintetizatu bezela eta gizarte konkretu baten egituren agerpen bezela ulertutako gertakariari lotuagoa (cf. Pierre NORA, «La vuelta al acontecimiento» in J. LE GOFF y P. NORA (eds.), *Hacer la historia*, Barcelona, 1978, 221-239 orr.).

(8) «*Del Estado nacional y no de otra cosa trata la trágica historia colectiva de los españoles en estos últimos cincuenta años*», adierazten zuen Carlos Moyak 1979an; C. MOYA, «Argumento de Leviatán», in *Señas de Leviatán. Estado nacional y sociedad industrial: España 1936-1980*, Madrid, 1984, 247-332 orr., aipua in 247 orr.; jatorrian Thomas HOBBS-en *Leviatán* (Madrid, 1979) liburuen hitzaurte bezela argitaratua izan zen. Ene ustetan, Moya motz gelditzen da berrogeta hamar urteak aipatzen duenean. Esandako eran, garaikide aro osoa inguratuko duen arazoa izango da. Badaude ikuspegi honetatik egindako hainbat irazkin partzial, baina oraindik egiteko dago Espainiako Estatuaren erakuntzaren historia bat (*nazio* zentzuan, hau da, ez zentzu politikoan edo juridikoan bakarrik, baizik eta gizarte oso baten zentzuan).

(9) Bi korronte hauek, neurri handi batetan, Renzo De Feliceren *movimento* eta *regime* kontzeptuei asimilatu daitezke; M.A. LEDEEN (a cura di), *Intervista sul fascismo*, Bari, 1976, 29 orr.

Azkenean, modernizazio politika bat egiteko ahalmenak noraino iritsiko ziren, eta, bigarren maila batetan, zein izango zen burokrazia berriaren estatusa (10).

Arabian zatiketa hau nabarmenki eman zen —agian, beste toki batzurretan izan ez zuen giza-laguntzarekin gainera. Lehenengo jarrera *Comunión Tradicionalista* barneko sektore batzuk hartu zuten (hauen artean zatiketa eta sentibilitate asko egon zirelarik). Bigarrena, aldiz, tokiko eskubi soziologikoak eta politiko kontserbadoreek defendatu zuten, militarrek haren eustarriak izan zirelarik. Zatiketa hau, jakina, drastikoa da benetakoa izateko, baina nahiko ondo hurbiltzen da haretara. Liskar hura, azkenik, hainbat gorabehera igaro ondoren, lehenengo jarrera politikoen hondamenarekin kitatu zen.

Urte hoietan hiru fase nagusi bereiztu daitezke (baita beste hainbat azpifase ere, hemen, azalpena argiagoa egiteko, agertuko ez ditudanak). Lehenengo bat 1936ko uztaitetik 1937ko apirilera doana, *militar fasea* bezela ezagutuko duguna. Bigarren bat urte horren irailetik 1938ko apirilera doana, eta *totalitario fasea* izendatuko duguna. Eta, azkenik, *lehen frankismoa* bezela ezagutua dena, 1938ko irailetik aurrera. Tartean transizio fase batzuk igaro zirelarik (11).

Beraz —eta bestela luzeegi joko genukeelako—, lan honen helburua ez da kronologia bat egitea baino. Garai haren historia markatzeko eta bere denborari dagokion erritmoa mugatzeko balioko duen periodizazioa. Ez gara, bada, gertaerak azaltzen luzatuko, baizik eta hemen proposatzen den kronologia gauzatzeko besterik ez dira erabiliko (12).

(10) Estatusa eta gizartearen arteko harremanen eztabaida eta kuestioaren egoerarentzat ikus T.SKOCPOL, «El Estado regresa al primer plano: estrategias de análisis en la investigación actual», *Zona* 50, enero-marzo 1989, 71-122 orr.

(11) Ikus daitekenez, garaiari aurre egiteko era honek, “*protofrankismoaren*” historiaren ikuspegia jasotzen du. Simetrikoki, gobernupean gelditu ziren lurraldeei buruzko estudioek II Errepublikaren azkenari buruzko lanak bezela kontsideratuak izan beharko litzatezke. Ene ustetan, gertaera haien 50 urteak ospatu ondoren ireki den une historiografiotan, gerrak berez erabat galdu du garaia adierazteko zuen indarra. Sintesi berri batzuk egiteko balioko duten monografiaren garaietan, ikerketek kontzienteki Errepublikaren ala frankismoaren logika politikoaren ikuspegia hartu behar dute garaiaren muinera iristea nahi badute. Historiografia honi buruzko hainbat panoramika eta balorapen egin dira. Ikus hauen artean (erakusuen labor eta plural bat egiteagatik) E.G. CALLEJA & J. AROSTEGUI, «Comentario bibliográfico», *Arbor* CXXV-491/2, 1986, 231-244 orr.; P. PAGES, «La guerra civil espanyola a Catalunya (1936-1939): balanç historiogràfic», *L'Avenç* 109, 1987, 56-63 orr.; J. AROSTEGUI (coord.), *Historia y memoria de la guerra civil. Encuentro en Castilla y León*, Valladolid, 1988, 3 tomo, I tomoa (koord.ren sarrera) 7-28 orr.; C. VENZA, «Guerra e rivoluzione in Spagna: nuovi contributi storiografici», *Nuova Revista Storica* LXXII-3/4, 1988, 465-472 orr.

(12) Beraz, gertaeren kondaketa zehatzari uko egiten diogun eran, ez gara bakoitzean iturrien aipua egiten geldituko. Lanean azaltzen den informazioa, funtsean, iturri hauetatik aterata izan da: tokiko egunkariak (*Pensamiento Alavés*, *La Libertad*, *Norte*), *Boletín Oficial de la Provincia de Alava*, *Boletín Oficial del Obispado de Vitoria*, *El Porvenir Agrario*, *El Defensor de los Maestros*, *BOE*, *Boletín del Movimiento de FET y de las JONS*, *Boletín de Campaña de los Requetés*, *El Pensamiento Navarro*, *Libros de Actas* de la Diputación Provincial de Alava, *Libros de Actas* del Ayuntamiento de Vitoria, eta Archivo Provincial de Alava, Archivo Histórico-Provincial de Alava, Archivo Municipal de Vitoria (eta lekuko beste hainbat artxibo) eta Archivo General de la Administración-ean aurkitzen diren hainbat dokumentutik.

I

Egun, gerra zibilari buruz zerbait garbi badugu, hau militar asaldapenak —eman zen unean— ez zuela Errepublika ordeztuko zuen proiektu politikorik da. Baina bera —edo bere *frakzio errebeldea*— zen, eskubiaren kultura politiko sedimentatu batentzat, *aberriaren bizkarrezurra (la columna vertebral de la Patria)*: eskubiak zuen Espainiako projektua artikulatzeko gai zen instituzio bakarra. Eta hau izan zen bere papera konspirazio garaian, eta, bereziki, gero erakunde juridiko-politiko berri bat eraikitzeari ekin zitzaionean (13).

Nolanahi ere, eta beste toki batean adieraztea nahi izan dugun eran, militar asaldapenarekin batera eta berarekin gaizki koordinaturik, Nafarroa eta Arabako lurraldeetan benetako altxamendu karlista bat —nahiz eta kontraesankorra— eman zen (14). Kolektibo honek, bere heterogenotasunaren gaitetik, bazuen hobeto edo gaizkiago definituriko programa politiko bat (Monarkia korporatiboa).

Kolpe kontrairaultzailearen zentruak (militarrak) zuen norabide eza eta egoera berrian karlistek bere eritziak inposatzeko zuten jomugaren arteko tirabirek (arestian definitu dugun liskarraren barnean) baldintzatu zuten arabar erretaguardiako bizitza politikoa 1936ko uztailetik 1937 apirilera doan epean. Urte eskas hau da *militar fasea* bezela ezagutzen duguna. Fase honetan, periodo osoan frontea oso hurbil izan zutelarik (Madrileko frontea, Legutiano, Bizkaiko ofentsiba), gerra esfortxuak ere eragin handia izan zuten (15).

(13) Militarren frakzio errebeldeak eskubiaren konstelazio politikoan izan zuen eransle paperari buruz ikus J. LLEIXA, «La trama civil de la sublevación del 18 de julio», *Historia 16, LA GUERRA CIVIL*, 3, 1986, 42-55 orr.; autore berak, «Reflexiones políticas acerca de la movilización derechista en la guerra civil», in J. AROSTEGUI (coord.), *op. cit.*, I tomoa, 211-224 orr.; autore berak idatzi zuen gaiari buruz bere tesia (kontsultatu ezin izan dudana), *Contrarrevolución monárquica y militarismo en la España de los años treinta*, Barcelona, 1985, 3 tomo (argitaratzeko zorian in “Institución Alfons el Magnànim”, Valencia).

(14) Militar eta karlisten arteko harremanentzat ikus JAROSTEGUI, «El carlismo, la conspiración y la insurrección antirrepublicana de 1936», *Arbor* CXXV-491/2, 1986, 27-75 orr. Reketeren mobilizazioa herri altxamendu bezela in JUGARTE, «Aproximación a una sociografía de los milicianos alaveses en el Ejército de Franco», *Perspectiva Contemporánea* 1, 1988, 51-78 orr. Bertan ere Arabako mobilizazioa. Nafarroarentzat ikus J. AROSTEGUI, «El voluntariado navarro en el Ejército de Franco, 1936, 1936-1939. Fundamentos sociohistóricos de un comportamiento ideológico», *Sistema* 47, 1982, 77-109; A. PASCUAL BONIS, «Navarra 1936: ¿Insurrección militar y/o levantamiento popular?», *Príncipe de Viana* XLVII-Anejo 5, 1986, 131-143 orr., gero idatzian konfirmatzen ez den oso izenburu iradokorrakin.

(15) Garai honen historia positibo batentzat ikus A. RIVERA & J. UGARTE, «La guerra civil en el País Vasco. La Sublevación an Alava», *Historia Contemporánea* 1, 1988, 181-201 orr.

1. Eskubi politikoaren makaltasunaren eta errepresentazio krisiaren aurrean, militarrek zuten eratzeko eta kontrajotzeko ahalmenagatik —baina baita zuten sentikortasun korporatiboagatik eta barne asuntotan eskusartzeko zuten tradizioagatik— hartu zuten beraien esku altxamenduaren zuzenbide politiko-militarra (16). Baita Araban ere. Hori dela eta, probintziako botere erresorte guztiak beraien esku gelditu ziren (gobernu zibila, diputazioaren presidentzia, Gasteizko alkatetza eta, noski, gobernu militarra) (17).

Baina horretarako, eta Araban eskubiaren sektore batzuk Estatu autoritario baterantzeko bilakaera beraiak gidatzeko prest zeudenez —Espainiako beste toki batzurretan, Nafarroa kenduez gero, nekez gertatzen zena—, haien helburuak galgatu behar izan zuten zuten uztailaren 19tik bertatik. Izan ere, egun horretan, karlisten ordezkari kualifikatuenetako bat zen José María Elizagarete *de facto* gobernu zibilaren buruan ezartzea intentatu zuen, bertatik probintziako bizitza politikoa kontrolatuko zuten itxaropenarekin. Hilaren 21ean bakarrik hartuko zuten militarrek gobernu zibila beraien kontrol zuzenaren pean.

Fase honetan, bada, militarrek ez ziren autoritatearen azken instantzia soilki izango (frankismoaren zehar beti gertatuko den zerbait, bestalde), zuzenean eta aktiboki parte hartuko zuten probintziako eguneroko politikan. Kontrol estu hau urte haren irailean bakarrik baretuko zen. Fronteak zuen beharrak zirela eta, militarrek zibilen eskuetan (karlisten eskuetan neurri haundi batetan, beraiak bait zeukaten erakuntza haundiena zein artikulatue-na) utzi zuten funtsezkoak ez ziren probintziako hainbat kargu politiko eta, bereziki, administratibo.

2. Nahiz eta tokiko eskubi antierrepublikarraren barneko sektore ideologizatuenak Primo de Riveraren garaiak autoritario zentzuan Estatu bat eraikitzeko zituen mugatasunei buruz erabat kontziente izan, eta nahiz eta giro hauen artean uztailaren 18tik ateratako erregimena ordezkoa ez zenaren ideia zabaldurik egon, lehenengo hiletako bizimodu politikoak esperientzia primorriveristaren haritik jo zuen (mende honetako bigarren eta hirugarren hamarkadan eman ziren hainbat erregimenen haritik: aurreko egoera politikoaren

(16) Ikus arestian 13. oharra.

(17) Gobernu zibilean Germán Gil Yuste jenerala (Primo de Riveraren laguntzaile nabarmena, monarkikoa, une horretan erretiratua eta “oporrak” igarotzen Gasteizen, laister altxatuen *Junta de Defensa Nacionaleko* partaidea), diputazioaren presidente bezela Cándido Fdez. Ichaso koronela (*sanjurjadan* parte hartu zuena, primorriverista eta tokiko giza-elitearekin harreman haundiak zituena, gasteiztarra), gobernu militarrean, Angel García Benítez jenerala (Errepublikako gobernadore militarra, altxamendu egunean ezbaikor, aurretik informatua izan ez zelako —Azañaren senitartea bait zen—, baina monarkikoa). Gasteizko alkatetzarena zerbait ezberdina izan zen. Rafael Santaolalla militar erretiratua izanik ere (Francorekin Toledoko Akademia Militarran egona), bere ezaugarri nabarmenena lekuko eskubi soziologikoarekin zuen harremana da (patronalaren presidente izandakoa). Nolanahi ere, bere independente kondizioa eta lekuko eskubian zuen pisua (eskubi guztiaren kandidato izan zen urte horren martxoan eman ziren hauteskunde munizipalengan) erabatekoak izango ziren militarrek, karlisten eusketan zaiaturik, Rafael Santaolalla Gasteizko alkatetzan kokatzeko hartu zuten erabakiaren ulean.

azaleko aldaketa bat, beraren salbuespen-antolaketa, borondate erregenera- zionista, e.a.) (18).

3. Militarrek zuzentzen zuten erakundeetatik isuritzen zen diskurtsua (garaiko diskurtsu dominatzailea, ezen garrantzia zuten erakunde guztiak zuzentzen bait zuten), oso gutxi estrukturaturiko pentsamendua zen. Doktrina euskarri oso murriztarekin, hainbat tendentzia amalgamatzen zuen: giza- kontserbadurismo sakon batetik tradizionalismo organizistara, erregenerazio- nista kutsuko antiliberalismotik katolizismo integristara, nazionalismo espai- noletik “apolitizismoara”. Orokorki, armadako sektore *afrikanista* barnean gauzatu, Primo de Riveraren Diktadura garaian sendartu eta Errepublika egunetan zabaldu zen pentsamoldearekin bat zetorren neurri haundi batetan (19).

4. Bestalde eta arestian genion eran, *ordenu korporatibo berria* eraikitze- ko prozedura gidatzeko jomuga zuen karlismoak, erabateko “posizio gerra” batean sartu zen botere kota berriak lortzeko helburua zuela bere iparrean.

Eskubian hegemonikoa izanik, erakunde ugari eta ondo estrukturatu bate- kin (20), miliziano kuota nabarmen batekin (21), karlismoa mehatxu erreal bat zen militarrek zuten asmo eksklusibistentzat. Hala ere, honen irtenbide parada kolokan zegoen. Eta hau altxamendu unean eman zen hainbat zir- kunstantziagatik.

Uka ezina da militarrek —zuten indar materiala, eta baita, kospirazioa eman zen eragatik, bai antolatzerakoan eta baita obratzerakoan—, beraien buru hartu zutela protagonismoa (ikus arestian). Baina beste faktore bat ere erantsi behar zaio koadroari beraren adikuntza osoa izan dadin. Eta hau José Luis Oriolen kontrolpean zegoen probintziako karlisten zuzendaritzak izan

(18) Ikuspegi ezberdinetatik, Primo de Riveraren diktadura frankismoaren aintzindari bezela eta, orokorki, faxismoarekin izan zituen loturei buruz ikus R. MORODO, *Los orígenes ideológicos del franquismo: Acción Española*, Madrid, 1985, 21-39 orr.; baita J. TUSELL y G. GARCIA QUEIPO DE LLANO, «La dictadura de Primo de Rivera como régimen político. Un intento de interpretación», *Cuadernos económicos de ICE* 10, 1979, 37-63 orr.; Sh. BEN-AMI, *La dictadura de Primo de Rivera, 1923-1930*, Barcelona, 1984, bereziki 52-59 orr.; J. TUSELL e I. SAZ, «Mussolini y Primo de Rivera: las relaciones políticas y diplomáticas de dos dictaduras mediterráneas», *in Italia y la guerra civil española*, Madrid, 1986, 171-235 orr.; M.T. GONZALEZ CALBET, *La dictadura de Primo de Rivera. El Directorio Militar*, Madrid, 1987; J. TUSELL, *Radiografía de un golpe de estado. El ascenso al poder del General Primo de Rivera*, Madrid, 1987; L. ALVAREZ REY, *Sevilla durante la dictadura de Primo de Rivera. La Unión Patriótica, 1923-1930*, 1987; G. GARCIA QUEIPO DE LLANO, *Los intelectuales y la Dictadura de Primo de Rivera*, Madrid, 1988; G. PALOMARES LERMA, *Mussolini y Primo de Rivera. Política exterior de dos dictadores*, Madrid, 1989, 23-36 orr. Gerra arteko diktadurei buruz ikus, adibidez, S.J. LEE, *The European Dictatorships, 1918-1945*, London-New York, 1987.

(19) Armada barnean zabaldua zegoen ideologiari buruzko hainbat puntuei buruz ef. J. LLEIXA, *Cien años de militarismo en España*, Barcelona, 1986, passim, G. CARDONA, *El poder militar en la España contemporánea hasta la guerra civil*, Madrid, 1983, 1-49 orr.; J. BUSQUETS, *El militar de carrera en España*, Barcelona, 1971, pp. 137-139; C. SECO SERRANO, *Militarismo y civilismo en la España contemporánea*, Madrid, 1984; C. BLANCO ESCOLA, *La Academia General Militar de Zaragoza (1928-1931)*, Barcelona, 1989 (azken hau oso prometagarria bere izenburuan baina dezepzionagarria behin zabalduz gero).

(20) S. DE PABLO, *La Segunda... op. cit.*, 171-192 orr.

(21) J. UGARTE «Aproximación...», *op. cit.*

zuen jarrera entregakorra da. Karlisten eta Molaren artean alde zurre eman ziren negoziaketetan, arabakoak Saint Jean de Luzko zuzendaritzaren planteamenduen aurkakoak izan ziren, eta militarrekin *kondiziogabeki* kooperatzearen aldekoak (karlista nafarrak beraiek baino era bipilago batean agian; ez ahortzi Molarekin lehenengo harremanak izan zituen José Luis Oriol izan zela, hain zuzen) (22). Jarrera honek egoera subordinatu nabarmen batean kokatu zituen arabar tradizionalistak. Baina, hasiera parada hau izanik, karlistak, arrakasta nabarmenarekin, botere kota berriak lortzen saiatu ziren ofentsiba politiko bat bultzatuz.

Ofentsiba hura ondoren zehazten ditugun estadio ezberdinetatik igaro zen.

Kolpeak porrot egin eta hurringo egunetan bikoloreko banderaren aldeko kanpaina bat abiatu zuten. Ez zen bakarrik apostu sinboliko bat izan (hau azaleko zentzuan hartuz gero), beraren bidez Estatuaren antolamendu monarkiko-korporatiboa erreibindikatzea nahi izan zen. Kanpaina hau, bere helburu konkretuan, laister irabazi zen.

Baina helburu orokorrak hor jarraitzen zuen lortzeke. 1936ko irailetik aurrera, beraien eratzailen indarrari esker eta probintziako erakunde estrukturraren birsortzea medio izan zela, karlistak, arian-arian, Diputazioa eta hainbat udaletxe okupatzen joan ziren. Erakunde hauetatik, eta prentsaren bidez batik bat, gizartearen antolamendu korporatiboaren aldeko (*Organización Nacional Corporativa*) eta falangistek eragindako ikuspegi estatistaren aurkako kanpaina bizi bat bultzatu zuten. Kanpaina honen inizatiba jatorrian *Junta Nacional Carlista de Guerras* izan zuten (23), eta beraren bidez, azkenean, karlistek kontrolaturiko hainbat erakunde sortzea nahi zen; militarren aurrean benetako indar posizioa izatea posible egingo zuten erakundeak sortzea.

Berak zituen asmoentzat suposatzen zuten arriskuaren kontzientzia izanik, urte haretako abenduan bertan hots batean moztu zuten Francok kanpaina hura (24). Data haretatik aurrera, probintziako karlismoa garai gatazkatsu batetan sartu zen, zuten influentziaren galtze nabarmen bat jasan zuelarik.

5. Falangismoa, bere aldetik, militarren eskuetan tresna erabilgarri bat bezela usatua izan zen. Bere funtzioa populazioaren antolaketan *Comunión Tradicionalistarekin* konkurritzea izango litzateke. Honela ulertzen da garai honetan izan zuten erabateko hazkuntza: gazte talde txiki bat izatetik, probin-

(22) Karlismo arabarraren jarrerari buruz (nahiz eta Fal Conderen ikuspegian defentsa burubero batetik) ikus T. ECHEVERRÍA, *Cómo se preparó el Alzamiento. El General Mola y los carlistas*, Madrid, 1985. Esan behar da, dena den, karlismo arabarra erabat heterogeneoa zela. Bertan eman zitezkeen alfonsinoei asimilatuko litzatezkeen jarreretatik (Oriol senitartea, esate baterako), Fal Conderen posizioetan egon zirenetara (José Goñi, adibidez), eta tartean matize guztiak. Karlista eta Molaren arteko harremanentzat ikus tarteko ibili zen A. LIZARZA IRIBARREN, *Memorias de la conspiración, 1931-1936*, Pamplona, 1945; haien hedapen osoa in J. AROSTEGUI, «El carlismo...» *op. cit.* ; eta baita ere M. BLINKHORN, *Carlismo y contrarrevolución en España, 1931-1939*, Barcelona, 1979.

(23) Cf. M. BLINKHORN, *op. cit.* 379 eta h. orr.

(24) *Ibidem*.

tziako bi egunkarietatik bat (*La Libertad/Norte*) (25) kontrolatzera igaro ziren, eta baita tokiko irrati emisorea (*Radio Vitoria*; karlistek emisore berri bat sortu behar izan zuten). Badaude hazkuntza haren alde jokatu zuten beste elemendu batzuk ere (hauen artean autoritarismo berriak gazteen artean zuen arrakasta), baina hura izan zen, zalantzarik gabe, garrantzitsuen.

6. Ikusten denez, nolabaiteko joku politiko bat ematen zen. Frente Popularreko alderdiak irailaren 13an emandako *Dekretu* baten bidez debekatuak izan ziren *de facto* lehenengo egunetik egon baziren ere, ez jadanik debekatuak iradokiak baizik. Hala ere, ez ziren oraidiok Estatu *totalitario* (26) baten oinarri juridikoak finkatu. Gauden datetan kontutan izanik hori harritzekoa ez bada ere, haren aldeko oinarritzko pauso praktikoak ere emateke zeuden: bazeuden oraindiok alderdi politiko ezberdinak, eta bakoitzak, nahiz eta jugak nabariak izan, bere proposamenak kalera zezakeen.

Ez da hau, gutxiagorik ere, joera “*demokratikoago*” batekin nahasi behar (27). Altxatuek sortu zuten sistema politikoa sistema autoritaritarioa zen bere izatean uztailetik bertatik. Baina oraindiok sendartu gabe zeuden europako *autoritarismo berrian* (28) proposatzen ari ziren alternatibak, eta hauen artean proposamen estatista eta alderdi bakarrarena.

7. Franco ez zen izan, Arabari dagokionez eta hilabete hauetan, denborarekin bilakatuko zen ezbairik gabeko sinboloa, legitimitate guztien iturria. Are gehiago, pertsonai eztabaidatua izan zen tokiko karlismoarentzat (“usurpatzaile” posible bat ikusten bait zuten berarengan). Militarrak, tokiko esku-biaren alde batek eta falangistak gero izango zen *leader* axiomatikoaren irudia eragintzen saitzen ziren bitartean.

Molak, bere aldetik, probintzian zuen influentzia eta itzala osorik gordezten zuen.

8. Egoera politikoa erabat narriatzen hasia zen 1937ko urtarrilaren bukararako. Hau *Comunión* eta falagisten artean eman ziren aurre ematetan gau-

(25) Egunkariaren historia labur batetarako ikus A. RIVERA, «Un arma para la guerra (*La Libertad y Norte*) 1926-1939», in *II Jornadas para la Historia de la Prensa*, Bilbao, 1988 (prentsan). Tokiko beste egunkariarentzat ikus S. de PABLO, «*Pensamiento Alavés: un diario tradicionalista ante la guerra civil*», in *II Jornadas... cit.*

(26) Estatu totalitario edo *totalitarismoari* buruz ikus beste hainbaten artean H. ARENT, *Los orígenes del totalitarismo*, Madrid, 1974; K.D. BRACHER, *Controversias de historia contemporánea sobre fascismo, totalitarismo y democracia*, Barcelona, 1983; R. DAHRENDORF, *Sociedad y libertad. Hacia un análisis sociológico de la actualidad*, Madrid, 1966; C.J. FRIEDRICH, *Totalitarism*, Cambridge, 1954. Denak ikuspegi *funtzionulista* batetik eginak. Eskola honi egin zaion hainbat kritikekin bat etorri arren uka ezina da beraiek egindako hainbat proposamenen baliogarritasuna.

(27) Linzen *pluralismo político limitadorekin* gertatu dena. Neurri handi batetan autoreari berari sor zaio nahaste gau; ikus J.J. LINZ, «Una teoría del régimen autoritario. El caso de España», in M. FRAGA, et al. (eds.), *La España de los años 70. El Estado y la política* (vol III), Madrid, 1974, 1467-1531 orr. Nahastearentzat baita autore beraren «Una interpretación de los regímenes autoritarios», *Papers* 8, 1978, 11-26 orr.

(28) Cf. H. ROGGER & E. WEBER, *La derecha europea*, Barcelona, 1971; W. LAQUER (Ed.), *Fascism. A Reader's Guide. Analyses, Interpretation, Bibliography*, Los Angeles, 1976; P. MILZA, *Les fascismes*, Paris, 1985.

zatu zen. Karlitek zuten influentzia nabarmenki galdu zuten (bai erakunde mailan, baina baita gizartean ere). Gatazketan mitarrak falangisten alde posizionatu ziren gehienetan.

II

Gerra paradak eta politiko-militar asuntoak era pretoriano batetan eraman beharrak zer ikusi haundia izan zuten azkenik hartu ziren erabakietan eta egoera zuzentzeko eman ziren pausoetan. Karlista eta falangisten artean ematen ari ziren enfrontamendu ia ireki haiek antz gehiegi zeukaten beste bandotan ematen ari ziren liskarrekin (29) —azkenean gaiditzea nahi zen erregimen liberal/demokratikoarekin—, eta batik bat, gerra ahaleginak arriskuan jartzen zituzten.

Bazegoen, gainera, erabakiak inspiratzen zituen erreflesio positibo bat ere —edo, beintzat, erreflesio positibo batetarantz eramaten zuena—: “*error Primo*” bezela ezagutzen zena ez errepikatzea (30). Honetan denak ados zeuden: aldaketak itzulezinezkoak zirela. Denen ustetan, liberalismo gorrotatua-ekin etenketa erabatekoa izan behar zen, eta sistema politiko berria osorik berreraikia autoritarismo modernoaren oinarriak jarraituz. Europan sentitzen ziren, eta populazioaren talde ugariak politikara helduak ziren gizarte batetan —nahiz eta Arabarentzat hau egi erdia besterik ez izan (31)—, Primo de Riberak erabilitako mekanismo zaharrak ez ziren aski noski. Ereduak, noski, Mussolinen Italia eta Hitlerren Alemania izan ziren —baita Salazarren Portugal, eta hirurak neurri ezberdinetan sentsibilitate ezberdinen arabera.

Alderdi bakar baten ideia eta gizartearen ikuspegi estatista eta korporatiboa jasoko zuen doktrina ofizial baten aldarrikatzea kontzeptu erabiliak ziren lehenengo egunetatik altxatuen artean (32). Francok berak aipatzen zion

(29) Errepublikan, PCE, PSOE eta errepublikarrak alde batetik eta POUM eta CNT bestetik, 1936-1937 negu guztian eman ziren iskanbilak, 1937 udaberrian jarraitu zuten Bartzelonan maiatzeko gertaeretan burutu arte; ikus azken honetarako M. CRUELLES, *Els jets de maig*, Barcelona, 1970; baita J. ANADRADE, *Notas sobre la guerra civil. Actuación del P.O.U.M.*, Madrid, 1986.

(30) Ez du honek esan nahi Primoren esperientzia ukatzen zenik, alderantziz, oso erabilia izango zen. Baina gehiago errefente simboliko bezela. Proposamen politiko praktikoetan ere erabilia bazen, *Acción Española* taldeak egindako aldaketekin izango zen; df. MORODO, *op. cit.*

(31) “Egi erdia” bi zentzutan. Bat nabarmena, Gasteizen honelako zerbait gerta balitekeen, ez zen inolaz ere hau gertatzen probintziako herri gehienetan. Bestetik, egia bada Errepublikarekin mobilizazio politiko nabaria eman zela Araban oro (berriz Gazteizen nabarmenago), hau mugatua izan zen, ez zen inolaz ere Europan ematen ari zen era konfliktiboan eman, eta hainbat elemendu zahar bertan zeuden oraindiok. Errepublika garaiko mobilizazio politikoarentzat eta beraren mugentzat ikus S. de PABLO *La Segunda... op. cit.*, passim baina bereziki 861-866 orr.; mende hasierako giza-erlazioentzat ik. A. RIVERA BLANCO, *Situación y comportamiento de la clase obrera en Vitoria (1900-1915)*, Leioa, 1985.

(32) Karlitek —Fal Conderen inguruan biltzen ziren karlistek zuzenago— ez zuten alderdi bakar bati buruz hitz egiten, alderdiak dezagertzeari buruz baizik eta gizartea era korporatibora antolatzeari buruz. Beraientzat alderdia mantentzearen proposamena neoliberala zen eta estatista. Fal Conderen jarreraren ikuspegi bat in J. AROSTEGUI, «El carlismo...» *op. cit.* eta M. BLINKHORN, *op. cit.*, 389 orr.

enbaxadore alemanari 1936ko urriaren lehenengo egunetan (33). Altxatuena arteko bi alderdi nagusien harremanak 1937ko otsailetik areagotu egin ziren (nahiz eta emaitza nahiko txarrekin, egia esan). Ala ere, Francok bere *Decreto de Unificación* atera zuenean sorpresa galanta izan zuten hainbat girotan, eta beraren aurkako jarrera nahiko zabaldua izan zen ere (hau, ulertu daitekeenez eran, apenas adierazi zen arren) (34).

Arabaren sorpresa benetan handia izan zen, eta ukapena ez txikiagoa gertakizunak utzi diguten arrastoen arabera. Ala ere, mundu guztia moldatu zen egoera berrira (eta moldatu ez zena eliminatua izan zen). Dinamika politikoa aldatu egin zen neurri handi batetan, Eladio Esparza, karlista, gobernu zibilararen buruan lau hilabete geroago jarri zutenean argituko zen *impasse* garai bat hasten zelarik.

Egoera berriaren lehenengo ondorioa militarrek bigarren maila batetara igoaraztea izan zen. Honekin batera, karlistek berreskuratu zuten galdua zuten protagonismoa; nortzuek, ia lehenengo egunetik, FET de las JONS alderdia kontrolatzea lortu zuten (dena dela, CT eta FE alderdi berriko talde antolatu bezela jarraitu zuten funtzionatzen, beste hainbat tokietan bezela) (35). Baina, agian azpimarragarriarena, Europako mugimendu faxistek Estatua antolatzeke eskaintzen zuten alternatibaren alde egin zen aukera izan daiteke (36).

Dena dela eta lehenengo une batetan, aurreko etapan gizon klabea izan zenaren iraupenak (gobernadore zibila, Cándido Fernández Ichaso koronela), Eustaquio Echave-Sustaeta (aintzinako karlista, gizon errespetatua baina urte haietan jadanik beligerantzia gutxi zuena) FETeko Delegatu probintziala izendatzeak, eta jatorrizko alderdien estrukturak ia ukigabe jarraitzeak, aldeketak oso txikiak izatera eramane zuten, eta, esan dugunez *impasse* egoera batetan jarraitu zen.

III

Gauzak amildu ziren eta gertaeren zeinua aldatu Eladio Esparza Aguinaga—karlista, kazetaria eta nafarra— probintziako gobernadore zibil bezela izendatu zutenean (BOE, 1937.08.26). Frontea, bere aldetik, probintziatik urruntzen joan zen (harik eta urriaren 21ean ipar aldekoa dezagertu zen arte).

(33) Ik. M. BLINKHORN, *op. cit.*, 388 orr. Azaroan Ximénez Sandovalen (falangista) ardura pean jartzen du alderdi bakar baten proiektua laboratzea; ik. Sh. ELLWOOD, *Prietas las filas. Historia de la Falange Española, 1933-1983*, Barcelona, 1985, 97 orr.

(34) Ik. honetarako M. BLINKHORN, *op. cit.*, 390 eta h. orr.; Sh. ELLWOOD, *op. cit.*, 103 eta h. orr.; S.G. PAYNE, *Falange, Historia del fascismo español*, París, 1965, 156 orr.

(35) M. BLINKHORN, *op. cit.*, 400 eta h. orr.

(36) “Europako mugimendu faxista” aipatzen dugunean De Feliceren zentzuan egiten dugu, hau da mende honen hasierako Europari dagokion mugimendu politiko dibertso bat bezela. Eta hau, Angelo Tascaren eran, *historikoki definitua*. R. DE FELICE, *Intervista sul fascismo* (a cura di M.A. Ledeen), Bari, 1976; A. TASCIA, *El nacimiento del fascismo, 1918-1922*, Barcelona, 1969, 10 orr.

Eta, nahiz eta gerrarako ahaleginak egiten jarraitu behar izan, lurralde honen gainean zegoen mehatxu fisikoa desagertua zen jadanik. Bilbo hartu ondoren bazegoen, gainera, gerraren bukaera (altxatuentzat bukaera garailea) denbora asuntua zenaren sentimendua. Orain barneko lanak eta barneko politikak hartzen zuten lehentasuna. Honela hasten zen *totalitario etapa* izenarekin izendatu dugun periodoa, 1938aren apirilera arte iraungo zuen periodoa (37).

1. Eladio Esparza, gobernadore zibila, eta José María Elizagárate, FETeko probintziar jefea, izan ziren (lehenengoa batik bat), beraien nortasunarekin, periodo gutzia baldintzatuko zuten gizon klabeak.

Esparza Nafarroako giro karlista eta katolikoan hazitakoa zen (nahiz eta CTrekin izan zituen haremanak nahikoa bitxiak izan ziren: bere militantzia formala Errepublikara garaikoa besterik ez zen izan) (38). Kazetaria eta nobelista, apirilean sortutako alderdi berriaren intelektualetako bat izan zen. Nafarroatik unifikazioko prozesu gutzian parte hartu ondoren, eta, karlisten *Delegación de Prensa y Propagandako* partaide bezela, FETeko Consejo Nacional de Prensa y Propagandara igaro zen (Ridruejo eta Tobar batzuekin batera). Victor Praderaren doktrina neotradizionista eta autoritarioaren jarraitzailea zen, eta foralista amorratua. Bera izatez, jite haundikoa, suminkoia eta asketa zen (nahiz eta kontrako testigantzak ere egon) (39).

Elizagáratek, bere aldetik, José Luis Oriolek Araba mailan aurrera eraman zituen ekintza guztiak lagundu zituen errepublika garaian (bere idazkaria izatek gainera, lekuko bere konfidantzako gizona ere zela esan daiteke) (40). Senitarte karlistakoa, abokatua eta gizon teknikoa zen. Altxamendu uanean paper garrantzitsu bat beste bazuen ere, gero probintziako bizitza politikotik at egon zen (alderdi berriaren lan burokratikotan).

Bi gizonek, Eladio Esparzaren gidaritza pean, elkar lagundu zuten azken arte, esperientzia berezi bat aurrera eraman zutela Araban.

2. Erakunde entramatu osoa berreraikitze asmoarekin, alderdi bakarraren (FET y de las JONS) indartze eta berrestrukturaketari ekin zitzaion.

1937ko urriaren 9an, Esparzaren izendatzearekin batera, karlisten egunkariaren (*Pensamiento Alavés*) zuzendaria aldatzen zen. José Goñi, unifikazioarekin haibat erreserba izan zuen karlista kendu, eta, bere ordeztu, beste molde-razago bat ezartzen zen. Erabaki honekin eman zitzaion hasiera alderdiaren komunikabide sarea eraikitzeari. Eraikintza honek hiru zuzenbide hartu zituen: Konfidantzako gizonen bidez, haren kontrol zuzena lortu, konsignak bateratu eta jerarkiaren bozeramaile fidelak bihurtu, eta populazioa arengatu eta Estatu berriaren alde mobilizatu.

(37) *Ik. supra* 26. oharra.

(38) Eladio Esparzaren aipamen baterako ik. R. GARCIA SERRANO, *La gran esperanza*, Barcelona, 1983, *passim*; baita 3. J. el BURGO, *Conspiración y guerra civil*, 1970, *passim*

(39) Cf. R. GARCIA SERRANO, *op. cit.*, 110 or.

(40) Cf. S. de PABLO, *La Segunda op. cit.*, *passim*.

Prentsaren kontrola lortu ondoren, FETen estruktura beraren berrantolaketari ekin zitzaion. Lehenengo neurri bezala, inoiz burukideekin kritikoa izan zen guztia, falangista zein karlista, araztua izan zen. Hauen orde, erabateko fideltasuna frogatua zuten gizonez osatu zen aginte piramide osoa. Prozesu hau ez zen alderdi barnean eman daitekeen errelebo bat bezela eraman: arazketaren erara egin zen, araztuak etsai bezela erabiliak izan zirelarik (hala non hainbat erbesteratze ere eman ziren).

Araztearekin batera alderdiaren aparatua sendartu eta zabaldu egin zen. Horrela, San Antonio kaleko edifizio batean bulego berriak antolatu ziren, non alderdiaren burokrazia ugariak lana egingo zuen. Hainbat delegazio, bai tekniko bai lurraldeko, eraiki zen. Arabako herri guztietan tokiko delegazioa ireki zen. Era honetara, probintziako eguneroko bizitza kontrolatuko zuen sare burokratiko zabal bat antolatu zen.

Paraleloki, afiliazio masibo bati aurre eman zitzaion: ehundakak izan ziren egun gutxiretan inskribatu zirenak. Eta hauen artean, berehala delegazioetako lanetan enplegatutako izan ziren mota guztietako teknikoak. Dena dela, alderdia zabaltzea nahi bazen, haren alde elitista eta jerarkikoa ere eustea nahi zen. Era honetara, afiliazio barnean bi maila bereiztu ziren (bakoitza bere obligazio eta eskubideekin): militantea eta elkartua. Lehenengoak aurreko CT eta FETik zetozen neurri handi batetan; elkartuak berriz, *Renovación Española*koak eta ez-afiliatuak osatzen zuten gehien bat. Honekin, militante zaharrak konbertso berrien aurrean zuten mesfidantza ere kontuan hartzen zen.

Baina afiliazioa ez zen pertsona indibidualena bakarrik izan, hainbat elkarte eta erakunde ere FETen afiliatu zen (esate baterako, Komertzio Kamara edo *Vitoriana de Espectáculos —VESA—*, e.a.). Honekin, nazismoak edo faxismoak egin zuten eran, gizartea antolatu eta, alderdiaren bidez, Estatuaren alde mobilizatu nahi izan zen (41).

1937ko azaroan, alderdien bidea jarraituz, sindikatoak ere elkartu ziren. Batetik, Araban karlisten inafluentzia pean zegoen *Sindicatos Católicos* (*Confederación Española de Sindicatos Obreros, CESO*) (42), eta, bestetik, falangisten sindikatua (*Confederación Obrera Nacional-Sindicalista, CONS*). Hauei, eta negoziazio luze bat medio, 1938ko otsailean Federación Patronal Alavesa gehitu zitzairen. Era honetara, alderdiari atxekia eta erakuntza “bertikal” eta korporatiboaren artean zegoen sidikal bat ereiki zen Araban: *Sindicatos de FET y de las JONS* deitua izan zena. Eta den hau, Sindi-

(41) Cf. K. HILDEBRAND, *El tercer Reich*, Madrid, 1988, 18 or.; K.D. BRACHER, *La dictadura alemana*, Madrid, 1973, 288 eta h.; E.R. TANNENBAUM, *La experiencia fascista. Sociedad y cultura en Italia (1922-1945)*, Madrid, 1975, 159 eta h.; F. VEIGA, *La mística del ultranacionalismo. Historia de la Guardia de Hierro. Rumania, 1919-1941*, Barcelona, 1989, 164 eta h.

(42) Nahiz eta CESOK estatu mailan eskubiko beste hainbat erakundekin ere harremanak izan, eta ez bereziki karlistekin. Ik. J.N. GARCIA NIETO, *El sindicalismo cristiano en España. Notas sobre el origen y evolución hasta 1936*, Bilbo, 1960; J.J. CASTILLO, «El Comité Nacional circunstancial de CESO, 1936-1938», REOP 38, 1974.

kal-Erakundeetako Ministeritzatik gero *Centrales Nacional-Sindicalistas* izango zirenak bultzatu baino hilak lehenago (43).

Hitz laburrez, Estatuaren erakundeetan eta gizartean oro, benetako eragina izango zuen alderdiaren aparatu sendo bat eraikitzea izan zen ahalegin haien nahia. Gizarte politikoaren bizkar hezurra eratzeko eta gizarte zibilean zuzenean esku hartzeko gai izango zen alderdi bat eraikitzea izan zen neurri batean —eta kojunturalki— lortu zen helburua (44).

3. Bere izendatzea eman zenetik, gobernadore zibilak probintziako udal-erakunde guztietan arazketa eta errelebo prozesu bat hasi zuen. Ez zen aski, jadanik, eskubitarra eta altxatuen aldekoa izatearekin, orain gobernadorearen bitartez atxekimendu gogoko eta eraginkorra agertu behar zitzaion *Mugimenduari*.

Honek hainbat zigor eta jaurtikitze ekarri zuen edileen gain, Arabako udal-erakunde gehienak ukituak izan bait ziren.

Antzerako zerbait gertatu zen Estatuak probintzian zuen administrazioarekin, eta baita diru publikoarekin finantziatutako beste erakundeekin ere.

Prozesu honen ondorioz pertsonal politikoaren errelebo nabarmen bat eman zen. Oraingoa alderdiaren esturturekin askoz ere lotuagoa —zeinekin hainbat aldiz nahasten zen—, politizatuagoa eta Erregimenaren jerarkiari fidelagoa izango zen.

Alderdiko gizonak Probintziako Diputazioa kopatzea lortu zutenean izan zen aldatze honen burutzea. 1938ko apirilean, Diputazio beria osatzerakoan, José M^a Elizagárate, FETeko jefe probintziala hain zuzen, Diputatu Orokorren kargurako izendatua izan zen. Honela burutzen ziren alderdiak Estatuaren erakundeak hartzeko egin zituen ahaleginak (45).

4. Burokrazia eraiki eta administrazioa kontrolatzearekin batera, ondo esturaturatutako ideologia bat —guk *faxismo tradizionalista* izeneztatuko genukeena— zabaldu eta bulgarizatzeko kanpaina sendo bati ekin zitzaion. Bere iturriak Victor Praderarenak izan ziren funtsean —eta bereziki honen *El Estado Nuevo* lana. Orokorrago, *Acción Española* aldizkariaren produkzio osoa (Permartín, Maeztu, Sáinz de Robles, Pemán, e.a.) (46).

Estatu korporatibo berri bat eraikitzea nahi zen, zein, Praderari parafraseatuz, ez zen Errege Katolikoena bera baino (47). Hau da, Europako autoritarismo modernoaren eredu jarraituz (hau da, masen garaiko eredu estatista),

(43) Cf. M.A. APARICIO, *El sindicalismo vertical y la formación del Estado franquista*, Barcelona, 1980.

(44) Neurri batean, europako erregimen faxistek jarraitu zuten helburua, ik. 41. oharra.

(45) Era honetara, Italiako faxistena baino nazien bidea hartzen zen puntu honetan.

(46) Talde honentzako ik. R. MORODO, op. cit. Baita beraren «Una revisión de la dictadura: Acción Española», *Estudios de Información* 21-22, 1972. Praderaren pentsamenduarentzat ik. M. BLINKHORN, op. cit. ,211-221 orr.

(47) V. PRADERA, *El Estado Nuevo*, Madrid, 1935, 396 or.

Nuevo Estado bat eraikitzea nahi zen. Baina hau, Espainiako «*inperial iraganaldi gloriosoan*» ikusten zuten ezia jadanik. Honekin, eskubian indar handia zuen Aparisi, Balmes, Mella e.a.en pentsamendu tradizionalista, behar autoritario berriei moldatzea nahi zen. Bide honetatik, arrakasta nabarmenarekin, gizarteari buruzko kontzeptio faxista modernoan haritik aurreratzen zen.

Ez zen hau, inoiz esan den eran, *Comunión Tradicionalistaren* ideologia ofiziala, gero Fal Condek eusten jarraitu zuena (48). Karlista “puruak” (edo Fal Conderenak) Europan ematen zen neotradizionalismotik eta korporatibismo katolikotik hartzen zuten beraien *corpus* teorikoa. Pentsamendu honek hainbat elementu arkaiko eta anakroniko zeukan, erdi aroko zenbat kutsurekin. Korporatibismo faxistarekin gonbaratuz gero, nabarmena —eta hitz gutxitan esateko— gizarteari buruzko zeukaten kontzeptio ez estatista izango litzateke (49).

5. “Masen mobilizazioa” izan zen autoritate berrien ardura nagusienetako bat. Ez zuten aski populazioak Erregimenaren arautegia betetzearekin, jendeak espreski azaldu behar zuen haren aldeko atxekidura. Hau garaian, bai giro akademikotan zein giro politikotan, oso zabaldua zegoen idea batekin lotzen zen: *masa-gizartean* bizi zirela (50). Liberalismoak desegin zuen gizarte hura —faxismoaren pentsamenduan, baina baita neotradizionalismoarenean eta konterbadorean— artikulatzeko era bakarra Estatua zen, eta bidea, haren aldeko mobilizazio politikoa (erakundeen bidez, manifestazioen bidez, e.a.), gizarte osoaren Estatuaren aldeko politizazioa.

Era honetara, kontu haundia izaten zen pertsona bakoitzak Estatuarekin zuen betebeharrak (eta gerra garaian ez ziren gutxi, *Dia del Plato Unico*, e.a.) inola ahalean bete zitezten. Helburu harekin hainbat diskurtsu egin zen eta hainbat artikulatu idatzi ere. Baina haiek eraginik ez zutenean, multak eta beste bortxak erabiltzen ziren: inoiz ipini ziren baino multa eta zigor gehiago ezarri ziren irazkintzen ari garen garai honetan.

Sozialgintza politiko ahalegin horretan, toki garrantzitsua izan zuen Erregimen berriak ezartzen joan zen liturgiak. Beraren bidez populazioak Estatuari behar zion atxekidura egunero azaldu behar zuen (erromatar salutantzia eta firme, kaleetan kokaturik zeuden bozgarailuetatik himnoaren bat entzuten zenean; egunero udaletxeetan bandera jasotzen zenean, gauza bera, e.a.).

(48) M. BLINKHORN, op. cit. 2110r.

(49) Korporatibismo ezberdinei buruz ik. adibidez, Ch. S. MAIER, *La refundación de la Europa burguesa*, Madrid, 1988, 28 or.; eta *passim*; L. ORNAGHI, *Stao e corporazione*, Hilano, 1984, *passim*.

(50) Kontzeptu hau soziologia zientzia barnean garatu zen eta gerra-arteko urteetan gauzatu eta zabaldu Europa guztian. Aintzindaria Tönniesek “komunitate” (*Gemeinschaft*) eta “gizarte”-aren (*Gesellschaft*) artean egiten zuen bereiztasunean zegoen. Perspektiba haren ustetan, gizarte modernoa aintzinakoak zuen armoniaren galtzearekin sortu zen. Burokraziaren harreman inpersonalak, pentsamenduaren deskralizazioa eta fanatizazioa, etika eza eta gizarte homogeen bat izango litzatezke beraren ezaugarri nagusiak; ik. S. GINER, *Sociedad masa: crítica del pensamiento conservador*, Barcelona, 1979.

Baina, batez ere, edozein okasio zela eta, antolatzen ziren masa manifestape-nak: jende guztia ondo kokatua, erritual haundikero eta diskurtsu dardarikor haiekin, dena gustu faxistarekin eginda (Wagner barne zela, baina baita Calderón ere).

Badago sozialgintza politikoaren bidetik hartu zen beste haibat erabaki (umeentzat eskoletako programazio berriztuetan, gazteentzat gazte-erakunde-etan, e.a.) baina periodo honetako propioak ez direnez, ez gara beraien iraz-kintzan geldituko.

6. Francoren irudia, bere aldetik, gero ezagutuko zen sinbologia, legitimitate guztien iturria izatera iritsi zen garai honetan jadanik. Baina, oraindiok, eta azpitik zuen indar erreala ukatu gabe, *mito* maila, buru-errepresentazio maila zehartu gabe zuen. Mitoa zertu gabe zegoen. Lekuko politikoez Franco aipatzen zutenean “Estatuar-en gauzatzea” edo “nazioaren borondatearen pertsonifikazioa” bezela erabiltzen zuten. Ez zen jadanik, arestian ezan dugun eran, ia publikoki eztabaidatua izango; alderantziz, bere irudia kasu guztietan gorapatua izango zen, eta Salamancatik bultzatzen zen bere aldeko propa-ganda kanpainari ez zitzaion ostoporik jarriko. Baina, ekintza politiko prakti-koak, tokiko politikoez erabiltzen zuten laguntzak, edo indar ekonomikoen eskakizunak ez ziren oraindiok bere pertsonan bideratzen.

IV

1938ko abustuaren 27an Ministrarien Kontseiluak Eladio Esparza bere kargutik kentzea erabakitzen zuen (BOE, 1938.08.30). Handik lau egunetara, bere bigarren bezela jokatu zuen José M^a Elizagaratek, Fernández Cuestarekin (garaian FETeko idazkari orokorra) egon ondoren, Arabako FETeko Delegadutzatik dimititzen zuen. Baina, atzeratze taktiko mugimendu nabar-ian, Probintziako Diputazioaren presidentzia bere eskuetan mantentzen zuen. Hala ere, handik eta urria arte (probintziako korporazioaren birmoldaketa bat ego zen hil horretan) Diputazioak izan zuen plenuko bilera batean ere ez zuen parte hartu. Agian bere indarrak mermatuegiak ikusi zituelako aurrera jarraitzeko, agian ez ziotelako jarraitzen utzi. Dena dela, bikote honek gauzak ikusteko zuen erak eragozpen geniegi aurkitu zituen, eta, urte haren apiriletik behintzat, krisi zabalean zegoen.

Aipatzen ditugun eragozpenak zeinu ezberdinetakoak ziren. Batetik, eman zen egozte eta herbesteratze zurrunbiloak, eragin handia zuten lekuko eskubi politikoaren hainbat sektorekin aurre ematera eraman zituen. Karlismoak probintzian zeukan herri-laguntza ez zegoen Esparza eta Elizagáraterekin. Ezta beste hainbat eskubitar ere (*Renovación Española* eta *CEDA*rekin identifikatzen zirenak, hain zuten).

Giro iskanbilatsu honek, nolabaiteko kaosa sortu zuen erakunde publikoe-tan eta administrazio barnean. Harek gauza publikoaren gestioan barneratu

zuen efikazia ezak, lekuko botere ekonomikoak ere probintziako autoritateen ingurutik aldendu zituen. Eta ez honek bakarrik. Baita Gobernadore Zibilak zerabilen diskurtsu faxista-populistaren haritik egiten zituen promes demagogikoek ere, ezen haiek, azkenean nahiz eta gutxitan izan— beraien interesetan kontsezioak egitera behartzen bait zituzten.

Lekuko egoera aldekoa ez bazen, are gutxiago Salamancan ematen ari zena. Esparzak, dirudienez, Conde de Rodeznoren konfidantza galtzen hasita zegoen. Baina, hori baino garrantzitsuagoa: 1938ko urtarrilean Francoren lehen gobernu eratu zen (zeinen bi ministeritza Gasteizen kokatzen ziren, hain zuzen) Estatuaren estruktura eta orokorrako baten barnean (51), eta plan harek zuen borondate zentralizatzailearekin (*totalitario* hitzean baino Francori ematen zitzaion kompetentzietan zegoen borondate hura) ez zen lotzen probientzietan ondo kontrolatu gabeko autoritateak edukitzearekin.

1938 udaratik aurrera egoera arrarotzen joan zen, eta piskanaka, gauzak aldatu ziren.

V

Ebroko eraso garailearen ondoren —*nazionalentzat* garaile— gerraren amaiera hurbil zirudien. Barne gobernurako eginkizunak Salamancako autoritateengandik gero eta aditasun haundiagoa eskatzen zuten. Araba, bere aldetik, bere bizitza politikoan *nazionalak* meneratzen zuten beste lurraldeekin parekatzen joan zen. Guk *lehen frankismoa* deritzogunaren garaia izango litzateke. 1938ko irailetik 1939ko bukaerara behintzat doan epea (1942raino ziur aski) (52).

1. Egoera berriak izan zuen lehenengo ondorioa, *personal politikoaren* (53) barnean eman zen errelebu izan zen. Masen nolabaiteko mobilizazio politikoak inplikatu zuen (eta arestian deskribatu dugun) faxismo totalitarioaren aldeko sektore guztiak (karlisten ingurukoak batez ere, baina baita falangisten artekoak), ezkena plitkotik at gelditu ziren. Beraz, “iraultza goi-

(51) Ik. S.G. PAYNE. *El régimen de Franco*. Madrid, 1987. 191-193 orr.

(52) J.L. García Delgadok “«Estancamiento industrial e intervencionismo político en el primer franquismo». in J. FONTANA (ed.), *España bajo el franquismo*, Barcelona, 1986) hitz berdinak (*primer franquismo*) erabiltzen ditu beste epe bat aipatzeko (1939-1949), baina bere erizpideak ekonomi politikarenak dira, gureak, aldiz, botere politikoarenak —eta, gainera, gure analisia Arabari dagokio, eta orain bakarrik oarekatu daiteke estatu osoari dagokion analisi batekin. Agian ezaugarriak Paynek (*op. cit.* 245-280 orr.) “*semifascismo*” deritzonarekingonpara daitezke, baina nahiago dugu *faxismo* hitzean gradaziorik ez sartzea, ezen analisi morfologikoaren eran baino (ik. honetarako adibidez PAYNE beraren *El fascismo*, Madrid, 1982, 13 or.) kategoria historiko bat bezela erabiltzea nahiago bait dugu.

(53) *Personal politikoaren* karakterizazio egoki eta etsigarri batentzak, ik. C. VIVER PI-SUNYER, *El personal político de Franco (1936-1945)*, Barcelona, 1978: 7-34 orr. Antzerako bide batetik ik. *elite politikoak* kontzeptua in M. JEREZ, *Elites políticas y centros de extracción en España, 1938-1957*, Madrid, 1982, 21-43 orr.

tik” (“*revolución desde arriba*”) deitzera etorri denari (54) mobilizazio harek ekarri liezazkiokkeen mugak edo baldintzak onez onera egotzi ziren. Aurreko etapan eman zen Fal Conderen planteamendu ez-estatisten inguruan mugitzen ziren sektore karlisten egozpenarekin, egoeran “behetik” eraginik izateko ahalmen guztiak itxiak gelditu ziren denbora askorako (55).

Hortik gainera, aurreko etapan eliminatuak izan ziren botere ekonomikoari lotutako sektore batzuk, berriz mundu politikora bueltatu ziren. Eta bigan-en mailan egon ziren eskubiko alderdiei lotutako hainbat ere.

Baina, pertsonal politikoaren giroan eman zen fenomeno garrantzitsuena, hezkuntza tekniko batekin eta talde politiko bati inoiz lotugabeko gizon talde berri bat iritsi zela lehenengo aldiz kargu publikotara era masibo batetan izan zen (56). Tendentzia hau altxamenduaren lehenengo egunetatik eman zen. Baina orain izango zen beraien diskurtso teknokratikoa eta desideologizatua inposatuko zuten uena. Hauek —eskubi ekonomikoarekin batera— izango ziren Erregimen berriaren euskara nabariena garai honetan.

2. Diskurtso ideologikoan ere aldaketa nabarmena izan zen. Lehenagoko etapako terminologiari, ponpeziari eta liturgiari eutsi arren (baretuta bederen), diskurtsoaren desideologizazio prozesu bati ekin zitzaion. Hainbat nozio generiko (*Patria*, sendia, erligioa, e.a.) eta militar faseko elementu batzuk (erregenerazionismoa, “politikaren” aurkako jarrera, e.a.) batzen zuten sinkretismo lainotsu bat zabaldu zen.

Une horretan, doktrinak *Caudilloaren* aldeko atxekidurari utzi zion paso.

3. Egoera honetan, FET y de las JONS alderdia (José María Aresti, falangista gris bategatik gidatua) ia desmuntatua izan zen, eta bigarren maila bate-tara igaro Estatuaren administrazio estrukturaren alde (57). Oso bereziki pro-

(54) Kategoria hau Raymond Carrek erabili zuen Errestaurazio garaiko proiektu maurista aipatzeko (ik. *Espuria, 1808-1936*, Barcelona, 1966). Gero Sholomo Ben-Amik erabili zuen franquismoari buruzko bere liburua titulatzeke (*La revolución desde arribar España 1936-1979*, Barcelona, 1980; oso liburu irregularra, bestalde; zer ikusirik ez Primo de Riveraren diktadurari buruzko bere lanarekin). Harez gero, hainbat aldiz erabili da historiografian. Hala ere, ez da ene gustoko hitza (*iraultza*) frankismoa aipatzerakoan. Italiako faxismoaren kasuan eztabaidagarria bada ere (ik. zentzu honetan jarrera erradikalena J.A. GREGOR, *Italian Fascism and Developmental Dictatorship*, Princeton, 1979; orainagoko eztabaida bat D. COFRANCESCO, «Fascismo: destra o sinistra», in K.D. BRACHER e L. VALIANI (a cura), *Fascismo e nazional-socialismo*, Bologna, 1986), ez dut uste Espainiako kasuan egokia denik: nahiz eta Estatu eraikitzeke proiektu berri bat egon, hau era kontserbadore nabarian iruditu zen.

(55) Kurioso da nola 1942-1943ko neguan eta urte haretan zehar (*Ejeko* potentziengandik ezberdindu nahian), Madrilék bultzatu zuen diskurtso ofizial berriaren barnean, ikuspegi ez estatistari, hain zuzen, ematen zitzaiola garrantzia. Ik. adibidez, PAYNE, *op. cit.*, 329-335 orr.

(56) Honelako zerbaite nahi du aipatzea Carles Viver Pi-Sunyerrek pertsonal politikoa 1936-1945 epean zehar “*curatorial*” dela esaten duenean (ik. *op. cit.*, 45 or. eta h.). Dena den, berak hauen *delegazio* izaceran jartzen du azentua.

(57) Ez zen hau Arabako kasua. Espainia osoan gauza bera gertatu zen eta espreski esan zen bere garaian Penintsulan bertan (ik. *Notas sobre la Falange como partido único. CUADERNOS DE ORIENTACION POLITICA*, Madrid, 1943). Italiako kasua antzerakoa da (ik. TANNENBACH, *op. cit.*, 83 or. eta h.). Ez horrela Alemania, non alderdiak Estatu osoa infiltratu zuen “*administrazio gabeko politikara*” joaz (H. MOMMSEN, «National Socialism. Continuity and Change», in W. LAQUEUR (ed.), *Fascism. A Reader's Guide*, London, 1967).

bintziako Diputazioaren alde, zeinek gerrak lurraldearentzat suposatu zuen baliabide atzeratasunetik birmoldatzea permitituko zion administrazioaren erreformari eta bere ekonomiaren osasuntzeari (hau kanpora begira ere: zerga ereduaren erreforma, bilketarako kontrolak, errepide sarea, e.a.) ekin zien.

4. Francoren irudiak aurreko etapan izan zuen izate sinbolikoa osorik gorde zuen. Baina berak, indar efektiboan eta praktikoan, nabarmenki irabazi zuen. Ideologiak eduki lezakeen legitimaziorako ahalmena gutxitzerakoan —ia desagertu arte—, norabide autonomoak sortzeko gai eta karisma pertsonal bat zuen buruzagi taldea lurraldeko eskena politikotik desagertzekoan, Estatuko organismo zentralen menpeko erakundeak probintzian nabarmenki hazterakoan, *Estatuko Jefeak* inoiz probintzian izan ez zuen erabakitzeko kapazitatea hartu zuen bere esku.

Indar *factico* hau santzionatzera besterik ez ziren etorri 1938an eman ziren bi dekretu (urtarrilak 30 eta apirilak 22).

5. Komunikabideek berri eta kontsigna ofizialak ematen jarraitu zuten. Baina ez ziren jadanik, aurreko etapan gertatzen zen eran, mobilizaziorako presioa sortzeko erabiltzen.

Bai *Pensamiento Alavésak* zein *Nortek* (lekuko bi egunkariak) aurretik zeukaten linea politikoa izaten jarraitu zuten. Baina eritzi artikulua anodinok, intentzio gabeak ziren. Eten gabe pertsonai galeria aipatuaz, baina lehen zeukaten intentzio karga hori gabe.

6. Eta horrela izan zen, edozein kausa zela eta populazioa mobilizatzen, mobilizazio erak askoz erritualizatuagoak eta moderatuagoak izatera igaro ziren, bai kantitatean hala beraien intentsitatean.

Eta honetan iristen da propioki *frankismoa* deitu daitekeen estadiora (nori guk “lehen” erantsi diogun, geroko etapetatik bereizteko). Bertan garatzen dira Erregimena 1975/6an iraungi arte iraungo duten ezaugarri batzuk. Hone-la eta definitiboki, Estatua eraikitzeo aukera egiten zen (“*goitik*”), eta, lehenengo instantzia batetan, sistema errestituzionistaren azkenengo urteetan sortutako hegemonia krisiari aurre egiten zitzaion. Orokorrago, historikoki klase dominatzaileek Espainian planteaturik zeukaten arazo nagusienari —hau da, nola antolatu eskubitik benetako *Estatu* bat (58)— irtenbide autoritario bat ematen zitzaion.

Halere, irtenbide hura erabat galdua izan zela 1989tik zalantzarik gabe esan daiteke. Are gehiago Araban, non altxamendua laguntzetik hamar urte barru, Espainiako sei lurralde *traidoreen* artean aurkitzen zen.

Gasteiz, 1989ko udazkena

(58) Ikuspegi honen azaltze sistematikoa in C. RAMA, *La crisis española del siglo XX*, Mexico-Madrid-Buenos Aires, 1960, liburu zahar baina oraindik iradokorra hainbat puntutan; baita J.A. GONZALEZ CASANOVA, *Federalismo i autonomia a Catalunya* (1868-1938), Barcelona, 1974; C. MOYA, *El poder político en España*, Madrid, 1975; eta beraren *Señas de Leviatán. Estado nacional y sociedad industrial: España 1936-1980*, Madrid, 1984.